



MUSIKA

Argerich edo “le toucher”



Kremerata Baltica orkestra eta Martha Argerich piano jotzailea (ondoko argazkian).



KREMERATA BALTICA

BAKARLARIAK: MARTHA ARGERICH (PIANO), ETA MATE BEKAVAC (KLARINETEA).

EGITARAUA: BACH, LISZT ETA WEINBERG-EN OBRAK.

DONOSTIAKO KURSAAL AUDITORIOA
AZAROAREN 23A

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

XX. mendean mito ugari daude pianoaren munduan, eta horietako bat, dudarik gabe, Martha Argerich pianista argentinarra da. Haur prodijioa izan zen. Lau urterekin eman zuen bere lehenengo errezitaldia eta zazpi urte zituenean Mozarten piano eta orkestrarako kontzertu bat interpretatu zuen. Juan Domingo Perón konaturatu zen haren izugarritzko talentuaz eta Vienan egindako ikasketa guztiak ordaindu zizkion. Handik aurrera karrera luze eta oparoa egin du mundu osoan, grabaketa ugari, eta beti frogatu du teknika akats gabea, musikaltasun erakargarria eta jotzeko era berezia dituela. Kurasaaleko saio honetan musikazale frantses batek esaten zuen ikaragarria zela andre honen *toucher* hori. Zaila da itzultzea hitz hau: ez da

pultsazioa edo pianotik ateratzen den soinua. Agian hori guztia da *le toucher*, gehitzen badiogu kontzeptu horri artistak lortzen duen giroa eta entzuleekiko komunikazioa.

78 urterekin, Argerich andreak mantentzen du bere kemena pianoan eta, bai, bere edertasun fisikoa. Gustua ematen zuen ikustea bere betiko adatsarekin, grisa gaur egun, bere soineko dotorearekin eta bere irribarre jostalari horrekin. Hori bai, pianoan eseri bezain pronto, musikari basatia ateratzen da eta zur eta lur gelditzen da publikoa.

Bachen *2. Partita do minorrean BWV 826* jo zuen hasteko. Perfekzio hutsa sei mugimenduetan. Zerbait nabarmen-tzeagatik, *Sarabande* izeneko laugarren mugimendua ñabarduraz beteta iritsi zitzaigun, delikatua, eta azkeneko *Ca-*

priccioan modu zoragarritz markatu zituen azentuak, efektu ederrak lortuz.

Jarraian, Liszt-en *Piano eta orkestrarako 1. Kontzertua, mi bemol maiorrean S. 124* jo zuen, Kremerata Baltica taldearekin batera. Gilles Collardek gainera orkestrarako egindako bertsioa interpretatu zuen. Bitxia izan zen hainbeste aldiz orkestra handiekin entzundako lan distiratsu hau oraingo honetan sokazko talde txiki baten eskutik entzutea. Freskotasunez eta perfekzioz aritu zen Argerich Andrea.

Bigarren zatian, Kremerata Baltica taldea eta Mate Bekavak klarinete jolea protagonistak izan ziren. Bachen *Chacona re minorrean* doi eta dotorea entzun genuen, eta Weinbergen *4. Ganberako Sinfonia op. 153* kolorez eta ehunduraz beterikoa disfrutatu genuen. Oso ona. ●